

1994ko urriak 7

249. zenb.

PRESS

# ARRASATE



**Maritxu eta  
Bartolo guztiak  
Dotore  
puntuari**



# egizabal



poltsak - oinetakoak

Ferrerias, 9 ☎: 79 66 01



# Aulki elektrikoa txolloa denean...

**H**amaika urte duela hil omen zituen tiroka bere gurasoak, bi urteko hiloba eta lehengusina biak. Hala esan zuen **Fermosellek New Yorketik**, noiz ez dakit, berriaren fotokopia ilunegia izan baita heldu zaidana, hirugarren kurtsoko ikasle batek emada. Louisiana da. **Michael Owen Perry** kargatu nahi duena; indarra eman gura zaio, argi izan dezan zergatik eseriko duten. LSPkoek egunkariko argazkietan erakusten dituzten zurezko tronotan.

Sendatzen baldin badute, Errege izango da segundu batzutan, aguantatzen badu, behinik behin.

Eskerrak **Forb vs Weenright** kasua sortu zen, pentsatuko du **Michaelek**: harez geroztik, justizia egiten dizute-la ulertu beharra baitaukazu, legez hil zaitzaten eta nik izango dut aukerarik, horretara denez gero.

**Perry** gajoa eta bere eskizofrenia sendagaitza.

Louisianakoek drogratu egin gura omen dute, pertsona "konpetente" bihurtu asmoz ejekuzioa gauzatu ahal izateko.

**Perry** ere **Haldol** dosiak maite ditu. Aztiak esan omen dio, ukendu horrek bakarrik bilaka dezakeela Errege eta Errege izan nahi du, edozein erreinutan.

EEUk gogaitu egiten du bere **demokratía** perfektuarekin. Denerbazio premia du, lepotik goranzkoa bederen, behe-ranzkoak bost axola baitigu. **Perry** gaixoa osatu behar dute, **jainkoak** eman dion jenio txarra kentzeko,

operazio **arriesgada** batean. Zein da **Perryk** egin duen meritua hamaika urteren buruan Errege egin dezaten?

Arrazoizkoa ote da **Krollena**? Apika bai; akaso, botuak somatzen ditugu odolean, hauteskunde garaian ez gaudenetan ere. Delako aulki elektriko hori txollo ikaragarria da. Ez dezatela erre. **Jodi bedi** beste hamaika urtean **Perry** eta ihar bekio zakila.

**JON IÑAKI LASA**



**ARRASATE**

**POXPOLIN**

Umeentzako oinetakoak eta berezitasunak

**Memesa**


**79 42 22**



Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurerriaren Udala eta Turismo Sailaren laguntza jaso du

## • ARRASATE PRESS •

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tfnoa: 77 05 65. Faxes: 77 09 40

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantza Loidi. **Kazetariak:** Itxaro Zubillaga, Maider Egües, Maria Agirre. **Publizitatea:** Jasone Mendizabal eta Ikerne Altube (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain eta Itsaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Blanka Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kopi, Danel Gokolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. Tirada: 5.500. **Logotipoa:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).



ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

**Azaleko argazkia:** Jabier Ozaeta



**ZENTRO  
PSIKOPEDAGOGIKOA**

**Zerbitzuak:**

- Diagnostikoa-Orientazioa
- Estimulazio goiztiarra
- Erreabilitazio funtzionala  
(Psikomotrizitatea eta  
hizkuntz bereziera)  
Logopedia
- Laguntza terapia
- Mota guztietako eskola  
arazoak, enuresia  
(Ohe bustitzea),  
eukopresia
- Ignazio Zuloaga kalea, 10  
Tfnoa: 79 48 77  
ARRASATE

**I  
R  
T  
A  
B  
E  
R  
N  
A**

Ferrerias kalea  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 56 11



**Alkoholarekin arazoak  
dauzkazu?**

Agian,

**“Alkoholiko Anonimoek”  
lagundu ahal dizute!!**

**Alkoholiko  
Anonimoak**

3. areako Informazio bulegoa  
(Gipuzkoa)  
Tfnoa: 61 93 38

**VE ECUADOR**

**Bidaiak**

Kontzeiño, 2  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 14 06

**Begoña**  
lurrindegia

**Drogeria  
Jostailuak  
Opariak**

Gipuzkoa Etorb. 33,  
Musakola Auzoa,  
Tfnoa: 79 03 73

**UDALAITZ  
TABERNA**

Erdiko kale, 3 ARRASATE  
Tfnoa: 79 20 61

••••

**Eskerrak emanez**

Txaro Azpiazu zenaren familiak eskerrak eman nahi dizkie berarekin gogoratu eta eurekiko izan duten jarre-rarengatik. Eskerrikasko denoi.

**FAMILIAK**

••••

**Adierazpen  
askatasuna eta  
elkartasuna herri  
txiroekin**

Joan zen larunbatean, Madrilen FMI eta BMren bilkura zegoela eta, hauxe salatzeko eta aldi berean horri buruz jendea jakinaren gainean jartzeko pankarta handi bat egin genuen eta Monterron azpian jarri genuen 8ak

aldera. Eguerdiko 12etarako edo, ez zegoen pankartaren arrastorik, eta ez dakigu nork kendu duen.

Horra hor, bertan jartzen zuena: “FMI eta BM 50 urte mundua suntsitu eta herrialdeko desberdintasunak areagotzen”. %0,7 ez da ezer, itxurakeria besterik ez. 3. Munduari “deuda externarik ez”.

Azalpen hau eginez: FMI eta BM, Iparreko Nazio botere-suek kontrolatutako erakunde finantzari internazionalak dira; “Ipar” eta “Hegoaldeko” ezberdintasun ekonomikoa suspertzen dutelarik. Honekin batera, GATTa sortu zen, komertzio “librea”ren arauak ezarri eta 3. mundua kompetentzia zorrotz horren bidez, gehi-go txirotuz.

Pankarta kendu zuena, 3. munduko herrialde kani-bal batera bidali beharko genuke, haien gosea asetzeko ez bada ere.

**A.G.A.K.O**

**Oharra**

Zure iritziak gure gutunen sailean argitaratu nahi badituzu, izan itzazu kontutuan honako baldintza hauek: Testua ez dadila 20 lerrotik gorakoa izan. Sinatzearean izena eta telefonoa adierazi, nahiz eta argitaratzeko orduan gaitzizen edo inizileaz argitaratzea nahi izan. Kontutuan izan identifikatu barik datoren gutunik ez dela argitaratuko.




# Diru asko gastatzen da Maritxu gauean?



**Ana Garcia**  
Fagorreko langilea  
(25 urte)

Bai, asko gastatzen da. Nik erropa prestatzen 3.000 pta gastatu ditut eta Maritxu gauean 5.000 inguru gastatuko dut.



**Miguel Rodriguez**  
Azkarreko langilea  
(51 urte)

Hori gauean egiten duzuren araberakoa da. Nik kanpoan afaltzeko asmoa dut baina afalostean, egiten dudaren arabera, gehixeago edo gutxitxoago gastatuko dut.




**Lia Errasti**  
Etxekoandrea  
(60 urte)

Egia esan, ez dakit zenbat gastatzen den. Seguruenik beste batzutan baino gehixeago gastatuko da baina ez dakit zenbat.



**Iker Zaitegi**  
Ikaslea  
(19 urte)

Ez asko, beste jai batzutan moduan edo gutxiago. Jende asko egoten denez, tabernetan ezin duzu eskatu eta azkenean ezer gabe aldegiten duzu.




**Aitor Jimenez**  
Langabetua  
(29 urte)

Bai, askotxo. Egun bakarra izaten denez, normalean baino gehiago gastatzen da.



**Eli Martin**  
Ospitaleko langilea  
(37 urte)

Askotxo ez. Urtean behin izaten da eta oso egun polita, beraz gastatutakoak merezi izaten du.



**Roberto Hernandez**  
Elektronikako langilea  
(21 urte)

Bai, asko. Afaria eta beste, nik 6.000 pta. inguru gastatuko dut.



**Amaia Uribarren**  
Langilea (28 urte)

Jendeak gero eta jantzi garestiagoak erosten ditu eta gero afaltzera joan beharra izaten da. Guzti hori egiten baduzu, garesti ateratzen da.

## Casa Ceciaga

### GAU DOTOREA PASAU!

Maalako Arrabala, 3 Tfnoa: 79 12 62 ARRASATE



**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**Eritetzeak**  
 Arrasateko Eskualde-Ospit. ....79 53 00  
 Igualatorioa .....79 05 00  
 Santa Agedako Ospitalea  
 (gizonak) .....79 39 00  
 (emakumeak) .....79 44 11  
 Buru osasunerako zentrua .....79 90 11

**Gurutze gorria**  
 Bergara .....76 55 76

**DYA**  
 Antzuola .....76 62 91

**Anbulatorioak**  
 Arrasate (Larrialdiak) .....79 13 57  
 (Txanda hartzeko) .....77 03 46  
 .....77 07 21  
 Oñati .....78 08 52  
 Eskoriatza .....79 98 58  
 Aretxabaleta .....79 74 58  
 Aramaio .....(945) 45 51 16

**Anbulantziak**  
 Gipuzkoako ambulantiak .....45 87 44

**Udaltzaingoa**  
 Oñati .....78 04 11  
 Bergara .....76 14 69  
 Arrasate .....79 14 39  
 Aretxabaleta .....79 10 52  
 Eskoriatza .....79 03 22

**Ertzaintza**  
 Arrasate .....79 71 99

**Suhiltzaileak**  
 Udal taldea .....79 09 00  
 Udal taldeko suhiltzaile burua .....79 20 72  
 Zubillagako Eskualde-Parkea .....78 28 00

**Matxurak**  
 Urak (udal zerbitzua) .....79 09 00  
 Elektrizitateak (iberduero) .....12 01 62  
 Gasa .....900 40 05 23  
 .....79 78 44  
 .....79 76 78

**Garraioak**  
 Taxiak .....79 12 22  
 P.E.S.A. ....79 14 19

**Hirugarren adinekoentzako zentruak**  
 Iturbide Egoitza .....79 72 11  
 Abaroa jubilatuen egoitza .....79 81 57  
**Kontsumitzailearentzako informazioa**  
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak .....79 87 77  
 KIUB-OMIC .....79 51 55  
**Monterongo liburategia**  
 Monterraon.....77 01 05

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Ostirala 7**  
 Egunez 22'00ak arte: Irizar, Erguin.  
 Gauez: Mozos, Pedro Deunaren, Bergara

**Larunbata 8**  
 Egunez 22'00ak arte: Ruiz, Maala.  
 Gauez: Camacho, Oxiorondo, Bergara.

**Igandea 9**  
 Egunez 22'00ak arte: Ruiz, Maala.  
 Gauez: Camacho, Oxiorondo, Bergara.

**Astelehena 10**  
 Egunez 22'00ak arte: Morales, San Andres.  
 Gauez: Puy, Barrenkale, Bergara.

**Astearte 11**  
 Egunez 22'00ak arte: Azkoaga, Ferrerías.  
 Gauez: Guallar, San Antonio, Bergara.

**Asteazkena 12**  
 Egunez 22'00ak arte: Español, Iturriotz.  
 Gauez: Estella, Matxiategi, Bergara.

**Osteguna 13**  
 Egunez 22'00ak arte: Amezua Sta. Marina.  
 Gauez: Camacho, Oxiorondo, Bergara

**7 OSTIRALA**

**MARITXU KAJOI EGUNA**  
 Goizeko 8etan etxafleeruak. 5etan umeentzako jolasak Herriko Plazan. 6.30etan buruhandi eta erraldoiak, Arrasateko gaiteruak eta ORIA txarangak lagunduta. 8etan herriko kuadrilek Maritxuri lore eskaintza egingo diote. 11.30etan Txinperta "Lasatarrak" Seberon. 12etan Pabilon taldearekin dantzaldia, Herriko Plazan.

**GAZTETXEA**  
 Gaztetxea zabaldu egingo dute Maritxu Kajoi egunean.

**ANTZERKIA**  
 "Orquesta de señoritas" antzezlan eskainiko du "Teatro kabala" antzerki taldeak. Elorrioko Arriola kultur aretoan 10.30etan.

**UNTZILAKO JAIK**  
 9etan elkarteko bazkide eta auzokide guztien artean auzo-afaria. Ondoren bertsolariak eta trikitilariak. Bertsolariak: Sebastian Lizaso eta Xabier Zeberio. Trikitilariak: Aintzane eta Goio.

**8 LARUNBATA**

**ZINEA**  
 "Por fin solos" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

**UNTZILAKO JAIK**  
 Ordubatean meza auzoko hildakoen alde. Gaueko 10.30etan Lotxo taldearekin dantzaldia. 11etan Murubide elkarteko XIII. Bola txapelketa.

**KONTZERTUA ARAMAION**  
 Kontzertu egitaraua Aramaion. Orfeo Vilanovi Kataluniako taldeak eskainia. San Martin elizan arratsaldeko 8.30etan.

**9 IGANDEA**

**ZINEA**  
 "Por fin solos" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

**HAUR ZINEA**  
 "Ipar haizeko kondaira" Amaia Antzokian arratsaldeko 5etan. Sarrera: 200 pta.

**INTSUMISOEN EGUNA**  
 Intsumisioen eguna Oiartzunen. Arrasateko talde antimilitaristak autobusak antolatu ditu; Garibaitik goizeko 9etan irtengo dute.

**UNTZILAKO JAIK**  
 Ordubatean meza. Ondoren Nikolas Gardoki soinujoia.



**INTSUMISIO EGUNA**

Intsumisio eguna Oiartzunen irailaren 9an. Garibaitik goizeko 9etan irtengo dute autobusek.

**MARITXU KAJOI**



**AEDren IKASTAROAK**

Otargintza eta Osasunerako elikadura ikastaroak antolatu ditu AEDko EKIN Emakume Taldeak. Astearte eta ostegunero emango dira klaseak AEDren lokalean, arratsaldeko 4.30etatik aurrera.



**10 ASTELEHENA****ZINEA**

"Por fin solos" 7etan eta 9.30etan.

**GRIPEAREN AURKAKO TXERTOA**

Aretxabaletako Osasun Zentruan 4.30etatik 8etara.

**UDALEKO LANPOSTUAK****ZINEA**

"Por fin solos" 7etan eta 9.30etan.

**OTARGINTZA IKASTAROA**

AEDko EKIN Emakume Taldeak antolatuta. Emalea: Ane Maite Tramon otargilea. Tokia: AEDn arratsaldeko 4.30etan. Egun honetan hasi arren, luzerako da.

**UDALEKO LANPOSTUAK**

Arrasateko Udalak kaleratutako lanpostu bitarteko, administrari laguntzaile eta gidari lanpostuetan instantziak aurkezteko epea bukatuko da.

**12 ASTEAZKENA****UDALAITZ EGUNA**

Udalaitz eguna. 11etan meza Udalaitz gailurrean, hildako mendizaleak izango dira gogoan eta Iban Learreta eta Antonio Zubizarreta Urzelai bereziki. Udala auzotik irteera goizeko 9etan izango da. Eguraldiak laguntzen ez badu, 12etan izango da meza Udalako San Esteban elizan.

**ELOSUKO MENDI FERIA**

Goizeko 9etan Feria hasiko da. Ordubatean sari banaketa. 1.15etan Bertsolariak: Liza-so eta Gorrotxategi. 5etan Goenatxo II eta Korta harrijasotzaileen saioa. Egun guztian zehar Laja eta Landakanda trikitilariak egongo dira eta arratsaldean txaranga. Antolatzaileak: Elosuko auzo eta jai batzordea. Laguntzailea Azkoitiko Udala.

**UDALAITZ EGUNA**

"Urriaren 12an Udalaitz eguna ospatuko da.


*Udala mendi, Udala mendi  
Euskal aitzik zutunena  
Araba alboan  
erdi Bizkaia  
ta erdi Gipuzkoa aizena.  
Zeruko Jaunak eukiko al au  
beti gaur baizen zuzena,  
eu aizen arte zutunik dedin  
Euskaldunaren izena".*

**ADINEKOEN OPORRAK**

Jubilatuentzat opor egitaraua prestatu du Inersok. Oporlekuak: Baiaresetara 15 egun urritik apirilera (26.260 pta). Andaluzia, Katalunia, Valencia edo Murtziara 15 egun (22.630 pta). Kanarias irletara 8 egun apiriletik maiatza arte (24.400 pta). Kultur zirkuitoak (Madrilera) 8 egun apirila, maiatza eta ekaina (13.680 pta). Programa hauetan parte hartzeko baldintzak: 65 urte izatea edo pentsioduna izatea, gaixotasun kutsagarririk ez izatea, baliatua izatea eta ezarritako ordainketa egitea.

**FAMILI ETA GIZARTE ZENTRUAREN IKASTAROA**

Famili eta Gizarte heziketarako zentruak zenbait ikastaro antolatu ditu, gazte eta helduentzako. Tailerrak, osasun alorreko ikastaroak, alor sozio-kulturalekoak besteak beste. Goizez, arratsaldez eta gauez antolatu dituzte ikastaroak. Matrikula zabalik dago; informazio gehiago nahi izan ezker 790459 zenbakira dei egin.

**SUKALDARITZA BEGETARIANO**

Sukaldaritza begetarianari buruzko ikastaroa urriaren 28, 29 eta 30ean Gesalibarren. Fernando Royo sukaldariak emango du ikastaroa. Prezioa: internatua eta alojamentuak barne, 9.000 pta. Izena emateko epea 24an bukatuko da. Informazio gehiagorako 771488 zenbakira dei egin.



“MCCko kongresistak ez dira Curia Erromatarreko partaide, ez dute habitorik jazten, kooperatibismoaren VPRak (Viven Permanentemente Reunidos) dira, gizarte garatuetako VIPen (Very Important Person) deituen parekoak, baina Visa Oro txartelik eta nekaturiko zuzendarietara erlazaziorako masaia ematen espezializaturik gabe. Bilerak egitea dute lanbide eta kongresu batetik bestera ere bilera etengabe eta amaiezina bizi dute, kooperatibetako organu sozial, laboral, espiritual, lurreko eta finantzetako guztietan partaide dira eta. Bilera, produktibitatearen adierazpen gorenak izanik, luzatu egiten da lanlekutik kanpo ere, auzoan, tabernan, kuadrilan eta batzuk Kanposantuan ere elkarren ondoan dute hilobia, eternitatean ere bilera jarraitu ahal izateko”.

### **Eukeni Olabarrietak**

**lanhida**

“Era berean, kongregazio erlijioso batek duela bi urte luze liburutegietan jarri zuen liburu bati, bapatean, ideologia ‘erradikalaren’ apologia leporatu izatea hauteskunde garaiko egoera berezitik ezin bereiz daiteke, izan ere PNVrentzat botoa eskatzen zuen kartel batez baliatu dira fraideok, boterekeria salatzeke. Argazkiaren egokitasuna beste norbaitek epai beza, baina oraingoan ere aitzakia nahikoa izan da euskal irakaskuntza zalantzan jartzeko. Mamuak edonon ikusten dituenari paranoiko deitzen ei zaio eta kasu honetan talde paranoia bat bizi ez ote dugun beldur naiz. Bitartean Alli Espainiako senatuan euskaraz mintzatu da, bere belarrietara ez zen nonbait hizkuntza honen arriskuen berri helduko”.


### **Bego Zubiak**

94-9-30

**egin.**

## **Zein helburu du Intsumisioaren egunak?**

**E**gun horren helburua ez da ekonomikoa, intsumisio mugimendua gehiago zabaltzea da asmoa. Azkenaldian, epaiketarek direla eta epaiketekin lotu izan da intsumisioa eta guk zentzu hori kendu egin nahi genioke. Jaia zabala da, gizarte osoa dago gonbidatuta eta gizarteoko sektore guztiak mugimendu antimilitaristan murgiltzea lortu nahiko genuke. Gizarte zibila militarismoaren aurka dagoela adierazteko modua litzateke.



**Juan Luis Esperesate**  
Arrasateko Talde Antimilitaristako partaidea

Intsumisoon helburua ez da soldaduskara ez joatea bakarrik, gure asmoa antimilitarismoan oinarrituz gizarteoko balore-batzuk aldatzea da. Azken finean, intsumisioa estrategia bat baino ez da antimilitarismoaren barruan eta horren alde mugitzea adin guztietako lagunentzako zeregina da. Horregatik gure festara adin guztietako pertsonak, giza mugimenduak eta alderdi politikoak daude deituta. Baina guzti horretaz gain, egunak garrantzia dauka intsumisiook gizartearen laguntza dugula ikusteko. Gaur egun, Nafarroako intsumisioek bizi duten sakabanaketa dela eta, gizartearen laguntza dugula ikustea ezinbestekoa da aurrera jarraitzeko.

Bestalde argitu beharra dago jaiak Kakitzat-ek antolatutako duela esatean, Gipuzkoako hainbat talde antimilitaristek parte hartzen dutela esan nahi dugula. Kakitzat, talde guzti horiek batzen dituen koordinakundeari emandako izena da. Arrasateko Talde Antimilitaristak, adibidez, zirkuitoaren antolaketan parte hartu du.

Jai egitarauari dagokionez, denetik izango da. Zirkuitoak hiru kilometro eta lau area desberdin izango ditu eta egunean zehar umeentzako jokuak, bertsolariak eta kantaldiak izango dira. Esan bezala, guztiok zaudete gonbidatuta.



# LASAGABASTER

**ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.**

**Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55**



**“Elkarri”ren hitzaldia**

Jonan Fernandezek, Elkarriko koordinatzaileak, ostegunean hitzaldia eman zuen Monterronen. Bake Topaketa Partehartzaileak jarriko dira laster abian eta hain zuzen ere horien zeregina zein den azaltzera etorri zen Jonan Fernandez. Berak azaldu zuenez, herria bakearen aldeko elkarriketa prozesuan parte hartzera bultzatzea da Topaketon helburua.



**Garagartzako jaiak**

Ostiralean eman zitzaizen hasiera Garagartzako jaiak eta egun horretan jende asko hurbildu zen, buzkantzak jatera batez ere. Larunbat goizean, berriz, pottokak izan ziren txikieneztat eta arratsaldean bikoteen dantza lehiaketa egin zen. Dantza lehiaketa horretako txapeldunak Oroitz oiartzuarra eta Aiziber lezotarra izan ziren.

**“ASA”ren lokal berria**

Joan den ostegunean ASA argazkilari taldearen lokal berria inaguratu zen. Lokal berria publikoa da eta Erguinen dago kokatua, tailaginen eta irratizaleen txokoa dagoen lekuan.

**Atxilotua**

Arrasateko gazte bat atxilotu zuten joan den ostiral goizaldean, Ertzantzaren eta gazte batzuen artean Oñatin izandako istiluetan. Beste gazte arrasatear bat ere gomazko pelotak jota Eskualdeko Ospitalera eraman zuten.

**Animalien eguna**

Asteartean animalien eguna ospatu zen eta animalien inguruan gogoeta egitera bultzatzeko animalia zale mondrauetarrek kartelak jarri zituzten. Kartel horien bidez animalien bizitza eskubidea eta berdintasuna errebindikatu eta espektakuluetarako tortura salatu nahi izan zen.

**MCCk saria jaso**

Mondragon Corporacion Cooperativari Irudi Saria eman zioten joan den asteburuan. Donostian egindako estatu mailako unibertsitate desberdinetako marketing irakasleen topaketetan jaso zuen saria, Jose Mari Aldekoak, MCCko kongresuko presidentea. Bere irudi sendoagatik aukeratu dute

MCC eta saria ematean enpresaren ezagupen maila, pretigioa, nazioarte mailan ezaguna izatea eta kontsumitzaileenganako erakutsitako ardura izan da kontutan.

**JAIOTZAK**



- Aitor Abarrategi Martinez. Irailaren 22an.
- Ander Sierra Calvo. 25ean.
- Asier Canturiense Amor. 19an.
- Lier Canturiense Amor. 19an.
- Cristian Fernandez Torga. 29an.

**EZKONTZAK**



- Jabier Martin Garcia & Josefa Benito Fraile. Irailaren 24an. Elizaz.
- Carlos Sarabia Garcia & Elisa Mendizabal Pacheco. 24an. Zibilez.
- Juan Luis Jurado Hidalgo & Erkuden Urkia Gonzalez. Urriaren 2an. Elizaz.

**HILDAKOAK**

- Maria Antonia Garcia Caballero. Irailaren 14an. 80 urte.
- Josefa Erasun Saldias. 15an. 83 urte.
- Maria Arregi Iregi. 17an. 90 urte.
- Eugenia Saenz Beltran. 21ean. 80 urte.
- Esperanza Mancebo Mediabilla. 22an. 91 urte.
- Natividad Etxebarria Alberdi. 23an. 75 urte.
- Jose Luis Etxebarria Fernandez. 24an. 69 urte.
- Candida Valor Valor. 24an. 45 urte.
- Rosario Azpiazu Aranburu. 28an. 44 urte.
- Rosario Gomez Villanueva. 28an. 73 urte.
- Casimira Aranburuzabala Uribebarria. 30ean. 82 urte.

**ADI!**  
2. eskuko  
autoak

Peugeot 205 SR .....	SS-1234-V
GOLF GTI 16V .....	SS- 3074-Y
Renault EXPRESS .....	SS-3322-AJ
PASSAT (aire egokituaz) .....	SS-8143-AM
Citroen XM .....	BI-8600-BD
AUDI 90 .....	SS-7940-AD
Rover MONTEGO 2.0 .....	LO-8121-G
Renault 21 GTS .....	SS-5636-Z

Musakola auzoa, z/g  
Tfnoak: 79 88 01 - 79 21 25





\* JON ANDUEZA

*Zer diozu pakeaz?*

## Pakie dala ta eztala!

**Pakeari** buruz idazteko eskatu zidatenean, bapateko erreflexioan gai konplikatu dela iruditu zait. Seguruenik ohitura falta izango da, azken bolada luzean belaunaldi guztiak gatazka giroan jaio baikara Euskal Herrian: hildakoak, atxiloketak, tortura, manifik... biolentziaren espirala eguneroko lagun!

Ez dut ezer deskubrituko gure gizartean zeozer aldatzen ari dela esaten badut, ordea. Garai batetik honantz kolore ezberdinetako ahoztan entzun ahal izan dugu aspaldiko egoera garratzari irtenbideak eman behar zaizkiola. Kolore ezberdinetako ordezkariak, bai, bake bila omen dabilta. Ipar Irlandako haizeen eragina ote?

Kontua da niri ez zaidala erronka erraza iruditzen. Gure Euskal Herria ez da herri "sanoa". Burugorrez josi-

tako lurralde honetan auto-kritika egiteko kapazitatea falta zaigu, eta norbere akatsak onartzeko gaitasuna falta ere.

Gauzak horrela... nola demontre imaginatuko dugu ba, enfrontamentuaren protagonista diren alde ezberdinak mahai baten inguruan

.....

*“Aspaldiko  
gatazkari behingoz  
bukaera emateko  
denok ikasi  
beharko dugu  
honetan edo  
hartan amore  
ematen”*

elkarrekin eseriko direla, eta eztabaidatu, eta konponbideak aurkitu eta gauzatu?

Aspaldiko gatazkari behingoz bukaera emateko denok, guztiok ikasi beharko dugu honetan edo hartan amore ematen; eta egia esan, ez dut uste oso iaioak garenik geureari uko egiterakoan. Beraz...

Beraz, itxaropenari eutsi behar, eta amets egin, baietz, gai izango garela azkenean gure herrira ganorazko pakea ekartzeko, eta presoak etxera itzuliko direla, eta denok batera ekingo diogula lanari etorkizuneko Euskal Herria eraikitzeko: herri librea, solidarioa, hemen jaiotako eta kanpotik etorri baina lurralde hau maite eta errespetatzen dutenen arteko batasunetik sortuko den biharko Euskal Herria!

\* KAZETARIA

## USTEAK USTE

### BUSTI ZAITEZ!

Ez. Ez da Maritxu Kajoi dela eta alkoholez barruak bustitzearen aldeko gonbitea. Egin nahi duenak egin dezala, libre da, inork apropos proposatu barik ere egingo da eta. Kanpotik bustitzeko aukera, berriz, ia urtero izaten da, Maritxuren miraririk komentatuena euri zaparrada eta eguraldi txarra izaten dira eta. Beno. Kontua da udazkena etorri dela, eta lerro hauek idaztean ostiralerako eguraldi iragarpenik egin ez dezakedan arren, aste honetan izan diren euriekin zerbait ikusteko modua izan dudala. Euria ari duenean pasiatzera irteten duenak badaki ondo zer arrisku duen. Baina pasialeku moduan Aretxabaletarako bidea hartzen duena... errukiena da. Izan ere, Mugarritte pare horretatik ezin esan busti barik etxeratu denik. Lehenago ere esana dugu, arekak errepidea baino gogo jartzea alperra dela, eta makina bat pasiatzaile ausart ikusi dut astean, goitik behera mela eginda. Orain berriz kaminoak hobetu egingo ei dituzte, autopistak egin, eta (kontsolamendu ederra), baita bidegorriak ere. Oraingoak ez du izen hori ere merezi, ridikulua ere bada eta. Eta kaminoaren arriskutik eta putzuetatik ihesi, hutsa metroko bide horretan sartzen den txirringulak, jantzi beza anoraka, autoen zipristin-zaparrada burutik behera hartu nahi ez badu.

ARANTZAZU LOIDI

Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 79 87 62

**Plus Ultra  
taberna**

Maalako Errabala, 17  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 20 57



Olarte, 30 etxabea.  
Tfnoa: 79 77 11  
Faxa: 79 77 11  
ARRASATE  
Postakutxa: 118





Maritxuren irudia beti izan den tokian jartzea eskatzen dute Batzordekoek.

## Amabirjinaren irudia ohizko tokian jarriko du Parrokiak

San Juan Bataiatzailean egin hasi ziren berriztapen lanak zirela eta, Errosarioko amabirjinaren irudia erretiratu egin zuten elizako beste irudi batzuekin batera. Maritxu egunerako hilabete inguru falta zenean, Maritxu Kajoi Batzordeak urriaren lehen ostiralean amabirjinaren irudia Erdiko kalean (beti egon izan den tokian) jartzea eskatu zion parrokoari. Obren segurtasun proiektua indarrean dagoenez eta festaren inguruan eta irudia hor jartzearen ondorioz sor daitezkeen arazoei aurre egiteko segurtasun proiektua aldatu egin behar denez, obren batzarrak eta batzar parrokiak erabaki behar zutela azaldu zien Jose Mari Astigarraga parrokoak eta behar izanez gero, bitartekari bezala ihar-duteko gertu azaldu zen.

Bi batzarrekin kontsultatu ondoren, segurtasun baldintzak aldatzeko behar den baimen eskaria egitea edo berak egindako sei proposamenetatik bat aukeratzea eskatu zion parrokoak batzordekoari. J.M Astigarragaren esanetan: "sei proposamenetan amabirjina-

ren irudia zegoen. Festa, irudiaz baina parrokiako obren segurtasuna oztopatuko ez duen tokiren batean egitea proposatu nuen, beste-tek beste".

Batzordekoek proposamen guzti horiei ezezkoa eman zieten eta Maritxuren irudia ostiralean eta aurrerantzean Erdiko kalean jartzea eskatu zuten. Giro horri irteera emateko, obren batzordearen eta Arrasateko apaizen oniritziak, erabakia hartu zuen parrokoak: "herriaren onerako eta festa istilurik gabe ospatzeko, ostiralean amabirjinaren irudia Erdiko kalean jartzea erabaki dut. Hori bai, parrokiako obrek edo parrokiak kalterik izaten badute, obren batzarra eta batzar parrokiak ez dira kargu egingo. Proposamenen izpiritua ez da festa ez egitea, ezta amabirjinaren irudia festatik kentzea ere, baina gerta daitezkeen galeren kargu ez gara egingo".

Ostiralean, beraz, parrokiak hala erabakita, amabirjinaren irudia Erdiko kaleko ate-an egongo da.

### Maritxu Batzordearen iritzia

Maritxu Kajoi batzordearen esanetan, ez dute motiborik ikusten amabirjinaren irudia mende batean zehar izan den tokitik kentzeko. Batzordearen iritziz "jaila hor sortu zen eta Maritxuren irudia lekuz aldatzeko jaiari nortasuna eta indarra kentzea ekarriko luke. Horregatik, aurrerantzean ere, Maritxu betiko tokian egon dadin nahi dugu. Arrazoi estetiko eta arkitektonikoak aipatuz, Erdiko kaleko sarrera atearen estiloarekin, Maritxuren irudia bat ez datorrela adierazi zaigu. Horregatik, behar izanez gero Amabirjinaren irudia egokitzeko gertu azaldu gara, baina ez tokiz aldatzeko".

Euren nahia ez dela eztabaidarik sortzea, parrokiak dituzten konpromezuak aurrerantzean ere betetzeko gertu daudela eta jaietako protagonista herritarrak direla, ez Batzordeko partaideak, argitu nahi izan dute Batzordekoek.

### Txosnak

Udalak baimena eman du Maritxu Kajoirako txosnak jartzeko. Erredakzioa isteko orduan oraindik finkatu barik zegoen txosnak non jarri. Musika bera izan beharko dute eta goizeko 4etan bolumena jeitsi.

#### • Txitxinpe •

Berezitasunak:

Kafea, ardoa, urdaitegia, fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

#### TTUKUN

Fotokopiak  
Enkuadernazioak  
Koloretan fotokopiak  
Planoen erreproduktzioa  
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE  
Tfnoa: 79 46 62

#### UDALAITZ


TABERNA

Erdiko kale, 3 ARRASATE  
Tfnoa: 79 20 61

#### ZUBIZARRETA TAILERRAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 15 65





Trenbide zaharra oinezko eta txirrindularientzat berreskuratuko da.

## Oraingo errepidea berritzeaz gain, bidegorria ere egingo da

Datorren urte hasieran oraingo errepidea berritu eta bidegorria egiten hasteko asmoa dago, Debasatik, Eusko Jaurlaritzara eta Araba eta Gipuzkoako diputazioek eratu zuten erakunde publikotik adierazi zai-gunez. Dagoeneko bi proiektuok egiten ari da LKSKo injineru talde bat eta urriaren buka- era ingururako eskuartean izango dituela uste du Debasak. Ohizko tramiteak egin, proiektuak jendaurrean aurkeztu eta obrak adjudikatu ondoren, lehenbait lehen bi lan horiek egiten hasteko asmoa dago.

Era berean, Maltzaga-Urbina bitarteko autobia edo autopista eraikitzearen asmoak aurrera jarraitzen du. Dagoeneko proiektu hori ere egiten ari dira eta oraindik zer eraikiko den garbi ez dagoen arren, Debasaren

esanetan baliteke zati bat autopista izatea eta beste bat autobia. Debasako prentsa arduradunak adierazi digunez, "Europar bide-saria ordaintzeko ohitura ugalduz doa eta hemen ere atzerriko garraiolariek bide-saria ordaindu beharko lukete errepidea era-biltzearen truke". Proiektu hori urte buka- erarako gertu izango da eta datorren urte amaieran obrak egiten hastea espero dute.

Trenbide zaharra oinezko eta txirrindularientzat berreskuratzearen asmoa pozik hartu dute Mankomunitatean, horrek turismoa bultzatuko baitu. Bidegorrian zehar turismoa erakartzeko ekimen batzuk egin nahi lituzke Mankomunitateak, geltokiak era- kusetetarako moldatu eta atsedeen tokiak egin, besteak beste.

### Arrasateko EUEn desadostasuna

Datozen

hauteskundeetan EAJ alderdiari laguntza ez ematea erabaki du Arrasateko EUEk. Erabaki horrekin, Xabier Gurrutxagak zuzendutako alderditik kanpo eta talde indepediente bezala geratuko herriko EUE alderdia. Aitor Orobengoak, udaletxean EUEko zinegotzia denak, berriz, independente bezala jarraituko du zinegotzi kargua betetzen. Arrasateko EUEko militanteek joan den ostiralean ahobatez hartu zuten erabakia, EAJren ideia kontsenbadoreak beren alderdiak dituen ideia aurrerakoiekin bat ez datozela uste dutelako.

### San Kristobal

Udalak triptiko batzuk aterako ditu San Kristobaleko kanposantua potentziatzeko. Azkenaldian herritar askok eskatzen du informazioa kanposantuaren eta prezioen gainean. Guzti hori argitzeko aterako dira informazio orriak.

*Mariano Igartua.*


**BANATZAILEA**

GAU ZORIONTSUA DENONTZAT

HAS - SAN MIGUEL - HAS - SAN MIGUEL - HAS - SAN MIGUEL

**Antso Abarka, 2-1 Tfnoa: 79 18 16 / 79 95 75  
ARRASATE**





Trafikoa dela eta sortzen diren arazoak konpondu egin nahi dira.

## Santamaina kalea zabaldu egingo dute

Trafikoa dela eta sortzen diren arazoen bukatzeko, Santamaina kalea zabaldu egingo da eta gainera gainkaldean ere rotonda egingo dute. Oinezkoentzat ere izango da abantailarik eskumaldeko espaloia eta goikaldean alde bietakoa, zabaldu egingo dira eta. Aldaketa horiekin trafikoa arindu egingo dela eta oinezkoentzat ere erosotasun handiagoa izango dela espero da.

Hirigintza sailak eginda dauka Santamainarako proiektu hori eta astelehenean gobernu batzordeak bere oniritzia eman zuen. Orain, datorren asteartean egingo den udal plenoak onespina ematea baino ez da

geratzen. Hain zuzen ere, lurren desjabetzea gertatu delako pasako da gai hori astearteko plenotik.

Obra horiek egiteko 20 miloi inguru gastatuko dira eta azaro hasieran obrak egiten hastea da asmoa. Gutxigora behera lau hilabete beharko dira lan hori egiteko.

Maalan rotonda egin denetik trafikoa-ren arazoa dexente zuzendu dela kontutan izanda, seguruenik Santamainan ere hala gertatuko da. Hala ere, kalea zabaltzeak ez du esan nahi aparkaleku gehiago egongo denik. Aurrerantzean ere aparkatzeko tokia aurkitzea arazo izango da Santamainan.

### Udalaren subasta

Garagartzako Arteaga baserria eta beste lursail batzuk enkantera atera ditu Arrasateko Udalak. Eskabideak aurkezteko jarri den gutxieneko prezio tipoa 17.435.781 pztakoa da eta baldintza plegua udaletxean dago interesatuek azter dezaten. Eskaintza aurkezteko epea urriaren 21ean amaituko da.

### Panelak

Hauteskundeetako propaganda horretarako egokitutako paneletan jarri beharko dute alderdi politikoek. Erdikaldean, San Andresen, Erguinen, Santamañan eta Musakolan auzo bakoitzean 20 panel jarri dira. Horretaz gain, beste 215 farola ere egokitu dira propaganda jartzeko.

### Epaiketa

Asteartean Iñaki Maidagan, 29 urteko intsumiso arrasatearra epaitu zuten. Epaiketan Maidaganek ez zuen epaimahaia errekonozitu. Fiskalak 2 urte eta 4 hilabeteko zigorra eskatu zuen. Ostiralean, berriz, Iraultza Iturbe arrasatearra epaitu behar zuten.

**ILUNTZ**  
Taberna  
ARRASATE

**ITURRIOTZ**  
**TABERNA**  
**Girorik ederrena**  
☎: 79 16 04





**Feli Castilok** eta **Luis Mari Elortzak** zilarrezko eztaiak bete zituzten irailaren 20an. Feli Garagartzakoa da eta Luis Mari arrasatearra. Bikotea 1969an ezkondu zen Garagartzan eta 25 urte elkarrekin igaro ondoren, bertan ospatu dituzte zilarrezko eztaiak, senitartekoen artean. Felik eta Luis Marik 3 seme-alaba dituzte. Zorionak!



90 urtez gorako aitona-amonek omenaldi hunkigarria jaso zuten Abaroako egoitzan. Abaroan izena emanda dauden jubilatuen artean 90 urtetik gorakoak 27 aito-amona badira ere, omenaldian 10 besterik ez ziren egon. Elkar-

tutakoen artean gizonezkoetan zaharrena, **Nikolas Zarraoa** da, 95 urtekoa. Emakumeetan, berriz, **Eugenia Berezibar** eta **Maria Erguine**k 94 urte dituzte. Zorionak eta halaxe jarraitu.



**ZALDIBARKO**  
**FUTBITO**  
**TXAPELKETA**  
 Arrasate

BAR  
**KAJOL**

**JMA**

OTRO SARCOSIARIO TRAZITEN LAI  
**ARRASATE**  
**KIBOLK**

OTRO SARCOSIARIO TRAZITEN LAI  
**ARRASATE**  
**KIRURGIA**

**Arrasateko kale eta tabernetan, ezaguna egingo zaigu argazkiko kartela hemendik aurrera. Zergatik? Zaldibar txapelketako kartel berria delako. Asteburuero jokatuko diren neurketa desberdinak irakurri ahal izango ditugu bertan.**

**ROTULOS ZABALETA**

**ERA GUZTIETAKO ROTULOAK**

San Lorenzo Industrialdea Tfnak: 76 57 34 FAX: 76 58 53  
 Amillaga, 21 (Gasolindegiaaren parean) BERGARA

**CRISTINA GARCIA MUGICA**

**Dermatologia • Benereologia**  
**Medikuntza • Kirurgia**

**SAN MARTIN OSASUNDEGIA**  
 Ramon M<sup>a</sup> Lili, 2 Gral. eskuma BERGARA ☎: 76 59 39





**Juli Gallastegi, Ino Kabijertua, Pilar Errasti** eta **Rosario Errastik** osatutako laukotea Parisen egon da irailean. Foru Aldundiak antolatutako bidaian joan ziren eta ondo baino hobeto pasatu

dutela esan digute. Makina bat abentura eta anekdota ekarri dute. Laukote honez gain, beste arrasatear batzuk ere egon dira talde ezberdinetan.

**Iban Delgado** 11 urte,

**Boni Ferreira** 12 urte eta

**Mikel Del Palacio** 12

urte. Hiru arrasatear hauek "DVGazteak" egiten duen

Jolaskuxki jolasean

finalista geratu eta aukeratu

egin dituztelako,

Futuroscopera joango dira

urriaren 14 eta 15an.

Gipuzkoako beste 45

neska-mutilen artean

aukeratu dituzte.




## IZEN PROPIOAK

● **Unai Torresek**, 20 urte-

ko arrasatearrak, asteburuan Madrilén estreinatu zen "Crónicas de Motel" antzerkian aktore lana bete zuen. Urriaren 21ean eta 22an Donostiako Victoria Eugenia antzokian estreinatuko da antzezlan.

● **Daniel Veyrier**-ek 44ko frantziarra igeltzeritzako ikastaroa ematen ari da Lanbide Eskolan. AFPAnko instruktoorea da eta Mankomunitateak eta AFPAn sinatutako kome-  
nioaren bitartez etorri da,

*Izozkitegi J. L.*



Otalora, 11  
☎: 79 93 58  
ARETXABAETA

• Gozotegia •  
• Italiar Izozkitegia •  
• Kafetegia •

Iturriotz, 7  
☎: 79 81 68  
ARRASATE



# H A U R R U Z I N E A

## U D A Z K E N E K O I G A N D E T A N

### URRIA

- URRIAK 2 "Atrapado en el tiempo"
- URRIAK 9 "Ipar haizeko kondaira"
- URRIAK 16 "Asterix: el golpe del menhir"
- URRIAK 30 "Navigator: una odisea en el espacio"

### AZAROA

- AZAROAK 6 "Todos los perros van al cielo"
- AZAROAK 13 "El hotel de los fantasmas"
- AZAROAK 20 "El Rey sol"
- AZAROAK 27 "El reino del oso polar"

### ABENDUA

- ABENDUAK 11 "Solo en casa II"

**Amaia antzokian  
Arratsaldeko 5etan  
Sarrera: 200 Pta.**



ARRASATEKO UDALA



# Maritxu: 18 urte beterik

# Adinez nagusi egin da



Arratsalde aldera hasten da festa gehienentzat, gutxi batzuentzat, berriz, eguerdian. Jantzi dotorez jazten direnak askotxo izaten dira, baina ez guztiak. Batzuk etxean afaltzen dute baina gehienek jatetxean. Ordu batzuk baino ez dituen jaia, modu desberdinetan bizi izateko aukera dagoen testigu dira kontakizuneko pertsonaiak. Hori bai, guztiek oso ondo pasatzen ei dute.

## HARRISTI: URTE GUZTIAN MARITXU NOIZ ETORRIKO ZAIN

“Maritxu jaia hasi eta handik bi urtetara ekin nion egun horretan jantzi dotoreak jazteko ohiturari. Orain dela zazpi urte arte, arratsaldetik aurrera ospatzen genuen jaia. Hamabost edo hogeiren bat lagun bildu eta jatetxeren batera joaten ginen afaltzera. Baina kuadrilako asko Maritxu Kajoi batzordean sartuta gaudenez, arratsaldean eskapularioak saldu behar izaten ditugu eta jakina, gauza bat eta bestea eguna motzegi geratzen zitzaigula ikusi genuen. Horregatik, orain eguerdian batzen gara, ordubatean poteoa egiten dugu eta argazki ofiziala atera ondoren, bazkaltzera joaten gara. Arratsaldean,



Eguerdian hasten dute jaia Harristik eta bere lagunek.

esandakoa: eskapularioak saltzen ditugu eta gero berriz ere ‘martxa’. Hori bai, tabernetara sartzen gara, zelabait tokia egin eta barruraino.

Ni urte guztian zehar Maritxu eguna noiz etorriko zain egoten naiz. Santamasak ere jai onak dira baina egun bakar bat delako edo ez dakit zergatik, Maritxu jaia ere izugarria izaten da. Gainera, egun hori aproposa izaten da udan edo urtean zehar egindako lagunak gonbidatzeko. Kanpotik jende asko etortzen da, baina niri egia esan ez zait axola, era horretan jaiak garrantzia handiagoa hartzen du eta.

Aurten gainera jaiak 18

urte betetzen dituenek, Maritxu adinez nagusia ere badugu”.

## TERESA BASKARAN: PRESTAKUNTZAK EGITEAK BADU XARMA

“Gazteek eta kanpoko jendeak ere ondo pasatzeko festa herrikoia dela esango nuke. Ni neu ez naiz sekula ere jantzi, baina grazia egiten dit. Ni ez naiz berandura arte ibili zalea, ez da nire estiloa, edateak ez nau dibertitzen; baina onartzen dut jende gaztearentzat batez ere baduela bere enkantua, ez jaiak edo gauak bakarrik, denak: jantzia prestatetik hasi eta gainera-

ko guztira arte. Kolektibo guztientzako moduko jaia dela uste dut”.

## MARIVI ETXEBARRIA: ARRASATEKO JAI ONENA DA

“Maritxu Kajoi eguna hasi zenetik ospatzen dut. Egun berezia da niretzat, Arrasaten daukagun jairik onena dela esatera ausartuko nintzateke. Hasierako urtetan gizonak euren aldetik joaten ziren afaltzera. Orain, berriz, guztiok batera joaten gara eta ederto pasatzen dugu, duela urte batzuk gaupasa eta guzti egin genuen. Maritxu Kajoi egunean behin baino gehia-



gotan dotore-dotore jantzita irten badut ere, aurten nahiko lanpetuta nago eta ez dut jantzirik prestatu; pena da, baina datorren urtera arte itxaron beharko dut, ea orduan denbora gehiago daukadan. Maritxu Kajoi egunean kanpotar asko etortzen delako kritikak entzun izan ditut sarritan, jende larregi egoten dena egia da, baina hori Arrasaterako ona dela uste dut eta gaua ondo antolatzen baduzu ez du zertan agobiantea izan behar; beharbada blai eginda bukatuko duzu baina, egun bat egun bat da.

**LOLI PEREZ: "MARITXU GAUA BEREZIA IZATEN DA"**


"Orain dela urte dexeute hasi nintzen Maritxu eguna ospatzen. Jaiak oraindik indar handiegirik ez zuen arren, lagun batzuekin aspaldiko era jantzi eta kanpoan afaltzen genuen. Oso hunkigarria izaten zen eta ilusio handia izaten genuen.

Hiruzpalau urtez horrela izan zen, baina gero ez genuen ohitura jarraitu.

Baina ez pentsa Maritxu egunean etxean geratzen naizenik. Senarrak eta biok, etxean afaldu ostean kalera irtezen dugu zelako giroa dagoen ikustera. Batez ere erdikaldean ibiltzen gara eta jakina, tabernetara sartzea ezinezkoa izaten denez, pasiatu egiten dugu; niri asko gustatzen zait neskek eramaten dituzten jantziak ikustea. Egia esan, denetik ikusten da, baina niri gehiago gustatuko litzaidake festarako baina lehenengo erara jantziko balira.

Maritxuko gaua berezia izaten da; hala ere, bere alde txarrak ere baditu: larregi edateaz gain, hurrengo egunean kaleak oso zikin egoten dira. Hala ere, berezia eta toki guztietan ezaguna da.

Aurten ere ez dut Maritxurako jantzia prestatu, baina eguna heltzean zera pen-



"Maño"ren ustez xeblebereria ugaria egiten dira Maritxu egunean.

tsatzen dut: hurrengo urtean jantziko naiz! Ea ba, datorren urterako animatzen naizen".

**J.M JIMENEZ " MAÑO": "GOIZEKO LAUETAN, BERAKAZOPA"**

"Maritxu Kajoi egunean sekula ez dut hutsegin. Hasierako urtetan kuadrilarekin ospatzen nuen eguna, baina gero ezkondu eta beste senar-emazte batzuekin elkartzten hasi nintzen. Orduetik, horiek pasatzen izan dut eguna. Egunez lan egin ondoren, arratsaldeko 7,30ak inguruan batzen gara poteoa egiteko. Jakina, miraria ikusi eta lore eskaintza ere egiten dugu. Horren ostean afaltzera joaten gara eta argazkian ikus dezakezuen bezala, afari garaian umore ona ez da falta izaten. Afaldu eta dantzara. Emazteari eta bioi asko

gustatzen zaigu dantzaz egitea eta goizaldeko lauak arte tabernetatik ibiltzen gara dantza eta dantza. Ordu horretan urtero moduan Txalaparta elkartera joaten naiz berakazopa prestatzera. Lagun guztiak hurbiltzen dira eta bertan egoten gara goizaldera arte. Gorputza ondo badago eta animatzen bagara, gosaldu ostean Udalaiztera joateko ohitura dugu. Baina hori momentuan erabakitzen dugu".

**ESPE MONDRAGON: LANERA ERE DOTORE JANTZITA**

"Niretzat jai polit bat da Maritxu Kajoi, herriko beste jaiekin konparatuta ezberdina, bere gauzatxo bat dauka eta. Hamabi urte daramatza lanera ere dotore jantzita etortzen; urte baten beste lagun bi

ere etorri ziren, baina normalean bakarra izaten naiz. Lehenengo urtetan urtero egiten nuen soineko berria, baina azken lau-bost urtetan soineko berbera jantzen dut, ez dago beti aldatzen ibiltzerik eta.

Hasieratik hona asko aldatu da jaiak: lehen urtetan jende gutxiago izaten ginen, soinekoak askoz ere normalagoak izaten ziren, izebarena edo amandrearena, lehengoa.

Egun horretan poliki-poliki gauzak desmadratuaz joan dira. Alde batetik jende pila etortzen da, eta aldatu egin du horrek. Beno, lehen jende gutxiagorekin hobeto zen guretzat, baina denok dugu ibiltzeko eskubidea, eta tira.

Egunean zehar zer egiten duzun? Lankideekin bazkaltzen dut eta arratsaldean irten arren, gabea afaldu eta irten egiten dut. Miraria lehen urtetan ikusten nuen, baina Portaloian geratzekotan, joan ere ez. Askotan telebistan ikusten dut. Gero gauean jende asko ibiltzen da, baina jende gutxiago ibiltzen den lekutara joan behar izaten da.

Gehien gustatzen zaidana jendea guztia jantzita ikustea da, baina oraindik jende asko ibiltzen da jantzi barik. Lehen jantzen zen jendeak ere utzi egin dio".



12 urte daramatza Espe lanera jantzita joaten.



## “MILAGRUAN APATXURRAUTA AKABETAN DOU”

“Maritxu jaia primerakua da! Ostiral horretan eskola normala izaten dou baina klasetik urteteko desietan egoten gare... a! Klasera, jakina, ez gare jantzita faten.

Eskolatik urtendakuen, etxera fan eta soinekue jazten dou, gero, makilatu, argazkixa atara... eta kalera! Urte batzutan fan izan gare milagru ikusten, baiñe jende larrei egoten da, “apatxurrauta” akabetan dou; aurten igual ez gare fango, gainera... ez dakigu Maritxu nun dauen!

Trajie, amak eitten dozku eta gehixenetan, aldatu eitten dou, urtero barrixe eitten dozku, guapa-guapa fateko. Atsaldien kalien ibiltzen gare eta lorak be erosten dou... aurren guri toketan jakun lorak eittia baina kurtso bukaerako biak 10. mailararte atzeratu danez, ez dou loraik egin. Gabien, dantzan ibiltzen gare, al douenian ligatu be eitten dou... tabernetara fateko gaztetxuek gare oindion eta gainera dantzan “guay” pasetan dou. Gabien gutxigorabehera 2'30ak arte izten dozku geraketan eta 700 eta 1000 pta emuten dozku... Zertan gasetetan douen? Txutxerixetan eta hippixak badaz, hippixetan.”



5.000tik 10.000 pztara ateratzen du talde bakoitzak lorak salduz.

## LORA SALTZAILEAK: “EZINBESTEKOAK”

“Gu San Viatorrekoak gara, 7. mailakoak eta 3 klase gabiltza lorak egiten. Taldeka banatuta gaude eta bakoitzak nahi beste lora egiten du. Gero, batzen dugun diru guztiarekin, afaritxo bat edo merendola egiten dugu. Egia esan, lorek ez dute prezio finkorik, jendeak borondatea ematen digu. Arratsalde osoa pasatzen dugu lorak saltzen eta batzutan, gabetan ere ibiltzen gara. Taldea osatzen dugun lagun kopuruaren arabera,

diru gehiago edo gutxiago irabazten dugu, baina gutxigorabehera, talde bakoitzak 5.000tik 10.000 pta. bitartean ateratzen dugu, ez dago txarto... Duela hilabete hasi ginen lorak egiten eta dagoneko, makina bat ditugu: larrosak, gorriak, moreak, berdeak... baina gehien saltzen direnak gorriak dira. Nortzuk diren lorak gehien erosten dituztenak? Aiton-amonak! Eskuzabalenak dira, eta baita Maritxu jantzita doazenak ere; gutxien erosten dutenak, berriz, gure adineko jendea da, ez dute

dirurik eta. Lorak egiten gure aldetik ikasi dugu, klasez kanpo egiten dugun gauza bat da eta.

## MAIDER LARRAÑAGA: AFARIA GEUK PRESTATZEN DUGU

“Afaria egiten dugu, jakina, baina bakar bakarrik egoten gara, Elkartetxean elkartzen gara eta. Gainera, 5 laguneko koadrila besterik ez gara eta inork ez gaitu molestatzeko. Afaria guk geuk prestatzen dugu, goxo-goxoa: 9ak aldeira sukaldea berotu eta hasi egiten gara; 10etan afaldu egiten dugu... edari batzuk ere erosten ditugu... jakina ... Ez da Arrasateko jairik onena, baina era honetan jazteko aitzaki aparta da, egunero ez da eta hain elegante jazteko okasiorik suertatzen! Duela 4 bat urtetik ospatzen dugu jaia eta ondo pasatzen dugun arren, kalean eta tabernetan ibiltzen den jendetza “agobiantea” da, benetan.

Alkohola? Bai horixe, inoiz baino gehiago edaten da. Jendeak diru pila gastatzen du. Guk, gutxigorabehera, 2.000tik 3.000 pztara gastatzen dugu... diru horrekin gauza asko edan daiteke, ezta?”



“Elegante-elegante jazteko aukera bakarra izaten da Maritxu gaua.”



# Maritxu eta alkoholaren gorabeherak

**Elikadura** eta osasunarekin lotutako gure kolaborazioari ekitera goazen honetan, aste honetarako egoki datorren gai bat aukeratu dugu, hasiera moduan. Badakigu denok zer gertatzen den jaietan alkoholarekin, eta batez ere Maritxu bezalako egun hauetan.

ARRASATE PRESS irakurtzen ostiral arratsaldean ari bazara, ondo etorriko zaizu gauza batzuk jakitea gaur gauean etxetik irten baino lehen. Baina, are hobeto orrialde hau irakurtzen larunbatean ari bazara, zeure burukomina arintzeko aholku batzuk emango dizkizugu (bart gehiegi edan bazenuen...).

## IKUS DITZAGUN MOZKORTZEAREN LAU FASEAK:

**Lehen fasea:** Norbere izakeraren arabera erantzun desberdina ager daiteke: gehiegi hitzegitea, alaitasuna edo umore txarra.

**Bigarren fasea:** Asko hitzegiten da, baina ez zaio tutik ere ulertzen, mingaina tratatu egiten zaio eta. Agresibitatea agertzen da, "eseak" egiten dira ibiltzean, dena bikoizturik ikusten da eta anes-



tesiatuak bezalako egoten gara: kolpeek ez digute minik egiten...

**Hirugarren fasea:** Jaietan normala izaten da jendea atari, jarleku eta txoko askotan etzanda eta "atxurra pasatzen" ikustea. Bada, aurrean dugun aingerutxoia loaldi sakon batean dago murgilduta eta horrek koma arinera ere eraman dezake.

**Laugarren fasea:** Oraindik edaten jarraituz gero, koma sakonean eta konortea galdurik geratuko litzateke. Neurri honetako mozkorak ospitalean bukatzen dira zor-

te piska batekin, baina heriotza ere ekar dezakete zoritxarrez. Fase honetara heltzeko "nahikoa" da whisky edo cognac botela erdi edo bi ardo botila t' erdi edatea.

## HORIETAKO BAKOITZEAN ZER EGIN?

**1. fasean:** ezer ere ez.

**2. fasean:** Edanda dagoena gela bero batera eraman; ez da aire freskoa hartzera joan behar, gorputzak erraz galtzen du eta bere temperatura. Botaka egin araztea komeni da, kafe gazia emanez, adibidez.

**3. fasean:** Konortea galdu duenari ez zaio edateko ezer ere eman behar, ito egin daiteke eta. Onena ospitalera eramatea da.

## HURRENGO EGUNEAN ZER EGIN?

Bixamona kentzeko likido asko edatea komeni da. Fruituen zakua hartzea izaten da onena. Aspirinak ere asko laguntzen du.

**MAIDER NUIN ETA JAVIER SANCHEZ (ELIKAGAIEN ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAKO IKASLEAK)**

## IKASTAROA

# OSASUNERAKO ELIKADURA

- \* Olio frijituaren ordezkak
- \* Gozogintza
- \* Ogia eta beste ore batzuen egintza... e.a.

**EMALEA:** Fernando Royo (Sukaldaria)  
**EGUNA:** Urriaren 13an hasita, ostegunero  
**ORDUA:** 4'30etan

**NON:** AEDn (Pablo Uranga, 4 behea)  
**ANTOLATZAILEA:** AEDko EKIN Emakume Taldea






## Z E R N A H I A G O ?

## Dunixi Uribesalgo

### Arrasate Tropikala dendakoa



- Nola sortu zen arrain denda zabaltzeko ideia? Etxeetan afizio handia zegoela ikusi genuen eta gu ere afizionatuak garenez, erabaki hori hartu genuen.
- Zenbat arrain mota dago? 150 gutxienez.
- Nondik ekartzen dituzue? Txinatik, Japoniatik, Alemaniatik...
- Arrainik garestiena? "Disco" delakoa, neurriaren arabera 10.000 pztara iritsi daiteke.
- Jendeak badaki Arrasaten era honetako denda dagoenik? Afizioa duenak bai, bestela nahiko ezezaguna da oraindik.
- Nondik etortzen da jendea? Deba Bailarako herri gutzietatik, baita Gasteiztik ere.
- Kezkatzen zaitu "bolanten" arazoak? Jakina, oso gaizki dago eta irtenbide bat behar da.
- Asteko egunik onena? Larunbata.
- Zaldibarren jokatzeko prest? Bai, "Arrasate Kristaldegia" taldearekin.
- Goxozalea zara? Bai.
- Egin duzu soldaduzka? Bai, Donostiako Hipikan.
- Neska batentzako izen bat? Amaiur, nire lobaren izena da eta.
- Eta begientzat kolore bat? Grisa.
- Aktore bat? Clint Eastwood.
- Probatu dituzu zineko eserleku berriak? Ez, ez naiz zinera joaten.
- Baduzu animaliarik etxean? Bai, txakurra eta laster, arrainak.
- Zer behar da politikari ona izateko? Gezurretan ez ibiltzea.
- Bizarra, atxurraz edo makinilaz? Atxurraz.
- Erretzen duzu? Puruak bakarrik.
- 18 urte bazenitu, gauza asko aldatuko zenituzke? Ez, gustora nago egin dudanarekin.
- Zer da bizitza honetan garrantzitsuena? Osasuna.
- Galdu duzu sekula konortea? Bai, txikitan sekulako kolpea hartu nuen patinetearekin.
- Ze odol mota daukazu? Ez dakit.

## LABURRAK

## Irakurzaletasuna suspertuz

Liburutegiak eginiko irakurzaletasuna suspertzeko ekintza egitarauaren aurrekontua ontzat hartu zuen joan den astearteko gobernu batzordeak.

Egitarau honetako ekintzak haur eta gazteei zuzenduta daude eta joan den asteazkenean hasi ziren Antton Irusta ipuin-kontalariarekin. Dena dela, hemendik eta abendura bitartean, liburutegiak oso ekintza interesgarriak antolatu ditu: Komiki tailerra, Euskal Herriko ilustratzaileen erakusketa eta "Leer para qué" izenburupean, Victor Moreno idazle eta literatura irakasleak emango duen hitzaldia.

Egitarau hau sortzearen arrazoia, era honetako programak suspertzeagatik Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak liburutegiei ematen dien diru kopurua da. Arrasateko liburutegiak egindako programa onartu egin da eta 700.000 pztako dirulaguntza jasoko du liburutegiak.

# IKASTAROA

## OTARGINTZA

- \* Oinarrizko teknika
- \* Klase guztietako otargintza. e.a.

**EMALEA:** Ane Maite Tramon (otargilea)  
**EGUNA:** Urriaren 11n hasita, asteartero  
**ORDUA:** 4'30etan

**NON:** AEDn (Pablo Uranga, 4 behea)  
**ANTOLATZAILEA:** AEDko EKIN Emakume Taldea





# Kirol proiektua ideia berriz josita dator

**Arrasateko** kirol proiektuak ikastaro eta ekintza ugari prestatu du 94-95 ikasturterako. Antolatutako ekintza guztiak Arrasateko eta Aramaiko 6 eta 14 urte bitarteko umeei dautu zuzenduta. Ikasturtearen iharduerak lau ardatz desberdin ditu: lehen eta bigarren mailetako umeei zuzendutako psikomotrizitatea, 3 eta 4. mailetako lantzen duten aurre kirola, 5 eta 6. kurtsoetan daudenentzako multikirola eta 7 eta 8. mailetako gazteei zuzendutako lehenengo espezializazioa. Aipatutako ekintzez gain, urtean zehar egiteko beste ekintza batzuk ere antolatu dituzte, hala nola, mendiko



Udako kirol eskolan ibili ziren neska-mutilak.

irteerak, bizikleta jaia edota udako kirol eskola. Kirol proiektuan parte hartzen duten neska-mutilek aurtan 11 kirol

desberdinen artean aukeratu ahal izango dute: igeriketa, saskibaloia, mendizaletasuna, atletismoa, eskubaloia, tenisa,

pilota, rugby-a, futbola, xakea eta boleibola. Ikastaroak talde txikitan egiten dira eta bakoitzak monitore espezializatua du. Bestalde, ordutegiari dagokionez, gazteek eskolaz kanpo izaten dituzten gainerako ekintzen ordutegiarekin bat datozen ordutara egokituta daude. Kirol proiektuak heziketa eta kirol ohitura uztartzea du helburu, beti ere, haurren hezkuntza integrala lortzeko eta baita familiaren barruan kirol kultura eta iharduera sortzeko ere. Ikastaro eta ekintzak aste honetan hasi diren arren, oraindik izena eman gabe dute nentzat badago aukera.

## Giharketa gela berria kiroldegian

**Musakolako** kiroldegian giharketa edo muskulazio gela berria zabaldu dute aste honetan. Giharreak lantzeko gela berri honen ardurua Durango-ko empresa baten esku utzi dute eta eurak arduratuko dira monitorea jarri eta instalazioak egoera onean edukitzeaz. Giharketa gelan sartu ahal izateko kuota ordaindu beharra dago; kiroldegiko bazkideek 2.950 pta ordainduko dute eta bazkide ez direnek 3.950. Jubilatuentzat abono bereziak egongo dira.


Giharketa gelan esperientzia eta tituludun irakasle bat egongo da, eta muskulazio egitera doazen pertsona guztien kontrola eramango du, hasierako hilabetean bakoitzarekin entrenamendu pro-

grama eginez eta gero aurrerapenak ikusteko test bereziak prestatuz. Kontrol guzti hauek derrigorrezkoak dira, aparailuen erabilpen txarraren ondorioz lesiorik gerta ez dadin. Bestalde, giharketa gelako arduradunek ariketa hori edozeinentzat dela ona eta beste

kirol batzuren osagaia izan daitekeela azpimarratu digute. Era berean, gelaren inguruan dagoen ideia okerra bertan behera utzi nahi izan dute: "Giharketa geletara doazena gihar handiak eta ondo landuak izateko joaten direla uste du jende askok, baina egia

esateko, ideia hori ez da zuzena, giharketa gelak kirola egiteko balio du, beste kirol moeta bat egiteko; gainera, bertan ibiltzeko ez da ezaugarri berezirik behar, 16 urtez gorako edonork egin dezake kirol hori kontrol apur batekin". Arrasateko giharketa gelan, bizikletak, zintak, pesak, eskailerak eta giharketa aparailuak daude eta bi hilabete barru beste aparailu batzuk ere ekarri behar dituzte.

Ordutegiari dagokionez, astelehenetik ostiralera arte goizeko 9etatik ordu batura t'erdia arte egongo da zabalik eta arratsaldean 4etatik 8.30etara. Larunbatetan 9etatik ordubiak arte. Eskaria handia bada ordutegiak aldaketak izan ditzake.



Muskulazio gela nahiko osatua dago dagoneko.

**EKAITZ  
TABERNA**

Edan gutxi eta goizaldean bueltak amari



**PENALTIAK**

• **Urbina-Maltzaga saskibaloitza** taldeak prime-ran hasi du denboraldia. **Forum de Valladolid-en** kontra neurtu zituen indarrak larunbatean eta joku bikaina erakutsiz 89-65 nagusitu zen. **Iturripeko kantxa** jendez gainezka egon zen eta taldeak ezin hobeto jokatu zuen. **Datorren larunbatean** denboraldiko bigarren neurketa jokatuko du **Urbina-Maltzaga CAB La Coruña** taldearen kontra, **La Coruña** kantxan.

• **Mondrak Aloñamendi** taldearen kontra jokatu zuen derbia. **Kepa Azkuek** azken minutuan lortutako gol bati esker nagusitu egin ziren. **arrasatearrak**. **Joku gutxi ikusi genuen** talde bien arteko norgehiagokan baina, hala ere, **Arrasateko taldeak 2 puntuak** lortu zituen. **14. tokian dago Mondra**, **5 puntu eta positiboa** batekin. **Datorren igandean Mondra eta Santurtzi** ikusiko ditugu nor baino nor **Atxabalpen**.

**Eskubaloien aurkezpena Iturripen**

**Arrasateko** eskubaloitza taldeak urriaren 12an, asteazkenean egingo du herritarren aurrean aurkezpena. Ekitaldi honetan lehen maila nazionalera igo berri den Arrasateko taldeak Iruñeako Ariston taldea izango du aurrean eguerdiko 12etatik aurrera, Iturripeko kantxan. Eskubaloitza taldean 4 talde daude une honetan. Kadeteak, jubenilak, territorialeko lehen maila eta estatuko lehen maila. Eskubaloitza talde desberdinetan 70 bat mutil dabilta eta esan beharra dago oraindik ez dagoela nesken eskubaloitza talderik, azkena duela 5 bat urte desagertu zen eta. Lehen territorialekoek joan zen astean hasi zuten denboraldia Her-



Saskibaloitza talde guztiak aurkeztuko dira asteazkenean.

naniren kontra indarrak neur-tuz. Zorte handirik gabe ibili ziren eta 28-8 galdu zuten. Urriaren 15ean lehen maila nazionalen joku behar duen taldea jarriko da abian. Valle de Trapaga eta Arrasate izango ditugu nor bai-

no nor Ortuellan jokatuko den partiduan. Jubenilek 16an izango dute denboraldiko lehen erronka Donibane taldearen kontra Pasaian eta Kadeteek Eibarren kontra neurtuko dituzte indarrak igandean.

**EMAITZAK**

**Futbola**

3. maila: Aloñamendi 0 - Mondra 1  
Emakumezkoak: Zumarraga 1 - Mondra 0  
2. Erregionala: Mondra 5 - Zestoa 0  
Jub. Ohorezko liga: Mondra 2 - Martutene 1  
Jub. 2. maila: Urki A 2 - Mondra 0  
Kadeteak, 1. maila: Arrasate 1 - Elgoibar 2  
Kadeteak, 2. maila: Arrasate 4 - Soraluze 5  
Infantilak: Arrasate 3 - Aitzgorri 2  
**Hurrengoak:**  
3. maila: Mondra - Santurtzi. Atxabalpe 4.30etan

**Saskibaloia**

EBA liga: Urbina-Maltzaga 89 - Forum 65  
Hurrengoak:  
EBA liga: CAB La Coruña - Urbina-Maltzaga

**Eskubaloia**

Lehen territoriala: Hernani 28 - Arrasate kirolak 8  
**Hurrengoak:**  
Lehen territoriala: Arrasate kirolak - Loiola. Igandea 12etan.

**Pilota**

Kadeteak: Tolosa 22 - Arrasate 4  
Jubenilak, esku banaka: Soraluze 18 - Arrasate 10

Nagusiak, eskuz banaka: Ordizia 18 - Arrasate 8

**Hurrengoak:**

Jubenilak, esku banaka: Arrasate - Billabona. Igandea 11etan, Iturripen.  
Nagusiak, eskuz banaka: Arrasate - Deba. Igandean, Iturripen  
Nagusiak, eskuz binaka: Arrasate - Deba. Igandea, Iturripen.  
Kadeteak: Billabona - Arrasate. Igandean  
Jubenilak, eskuz binaka: Anoeta - Arrasate.

**Futbitoia**

Lehen nazionala: Construcciones Brues - Promociones Madaria. Igandea 12etan.



**RUTH GATZAGA**

Jatetxea

**MARITXUN**


Afariak amaitzean  
**TABERNA ZABALIK** eta  
**KRISTON MARTXA!!**

Olarte kantoia. 3 Tfnoa: 79 59 57 ARRASATE



# Badator Zaldibar txapelketa

## TALDEEN ZERRENDA



**Maritxu Kajoi** biharamunean bai Iturripen eta baita Zalbidarren ere, baloia jarriko da jokoan eta hemendik ekainera arte Zaldibar txapelketak txoko bat izango du ARRASATE Presen. Aurten 80 taldek eman dute izena eta asteburuero 1.225 jokalarik ibiliko dira su eta gar, osatu diren 4 taldeetan.

Talde gehienak arrasatearrak diren arren, Atxabalta eta Eskoriatzako taldeak ere izango ditugu 94-95 Zaldibar txapelketan. Arauei dagokionez, iazkoekin alderatuz gero ez dago desberdintasun nabarmenik: aurten, lehen fasean batez ere, epaileei interesa eskatuko zaie, jokua gertutik jarraitzea izan da jarri zaien baldintza. Antolatzaileek interesik eza ikusten badute epailea zigor dezakete. Neurketa jokatzeko, 4 jokalarik eta atezainak egon beharko lukete gutxienez, bestela, 10 minutu itxaron eta tarte horretan inor agertzen ez bada, taldea kanporatu egingo da. Jokalari batek ezin du bi taldetan jokatu eta izena eman ez duen jokalariren batek jokatu ezker, antolatzaileen aldetik ez da eragozpenik egongo, baina aurkariak errekurtsioa jarritz gero, arrazoia emango zaio. Esanak esan, datorren larunbatetik aurrera Zaldibar futbito txapelketaren lehen fasea jarriko da abian. Zorte on guztioi!

## 1. JARDUNALDIA

### LARUNBATA 8

#### ZALDIBAR

- 08.50 Bukanak- Astoena bila
- 10.00 Orkatz- Pepelus
- 11.00 Lorategi Potroak- Nabarros
- 12.00 Eztanda egin arte- Hirei
- 13.00 No Comment- Los Dimy
- 14.00 Tovarixtx- Ezkiñako hontzak
- 15.00 Bodiska- DKB
- 16.00 Los Heredia- Diego An. Iriztu
- 17.00 Fosforos- Bayer Lenitz
- 18.00 La BAnda- Txeyenex
- 19.00 Aterpe- Zuloak

#### ITURRIPE A

- 10.00 Leya- Perrahotsa
- 11.00 BZ Sistemas- Borrock'n Roll
- 12.00 Los Dalton- Strauss
- 13.00 Danok Lagun- Uglys Txinato
- 15.00 Arrasate Kirolak- Fraguel Gol
- 16.00 Teodolito- Butangak
- 17.00 Arrasate Zoo- Monterrey Tab.
- 18.00 Ganbelas- Illuna Bar

#### ITURRIPE B

- 10.00 Tronkoteak- Sukar
- 11.00 Berango Sukal.- Pub People
- 12.00 Excavaciones Lete- Potrosorri
- 13.00 Ojo a Visore- Alta Porru
- 15.00 Insert Coin- Cerveceria Lenitz
- 16.00 Bar Txoko- Equus BTR
- 17.00 Anorthosis Agudah- Motz
- 18.00 Adelaida Haizea- Zotz

### IGANDEA 9

#### ZALDIBAR

- 8.50 Jotakabau- Irati STS
- 10.00 Elisabeth- Sokoakoak
- 11.00 AC Surcos- kakajauri
- 12.00 Salenko y Cia- Kriskibalda
- 13.00 Trikiti- Totem

#### ITURRIPE A

- 10.00 Nuevo taberna- Sum. Ugarte
- 11.00 Anbotoste- Petroleros
- 12.00 Frantziskaner- Orlando Piratas
- 13.00 Lautherbrunnen- Mikelos

#### ITURRIPE B

- 10.00 Artzankos Udala.- Autos Muru
- 11.00 Ke Oxtias!- Foto Imagen
- 12.00 Koka Juniors- Baneuko
- 13.00 Argi Ibili- Resakas

## A taldea

- BUKANAK
- ASTON VILLA
- SALENKO Y CIA.
- KRISKIBALDA
- FOSFOROS
- BAYER LENITZ
- LOS DALTON
- STRAUSS
- GANBELAS
- ILUNA BAR
- INSERT COIN
- LENIZ GARAGAR.
- ADELAIDA HAIZEA
- ZOTZ
- EZTANDA EGIN ARTE HIREI
- ARRASATE KIROLAK
- FRAGUEL GOL
- ATERPE
- ZULOAK

## B taldea

- ORKATZ
- PEPELUS
- ANBOTOSTE K.T.
- PETROLEROS F.C.
- NO COMMENT
- LOS DIMY
- ARRASATE ZOO
- MONTERREY TAB.
- TOVARIXTX
- EZKINAKO HONTZAK
- DANOK LAGUN
- UGLYS TXINATO
- LA BANDA
- TXEYENEX
- NUEVO TABERNA
- SUM. UGARTE
- TRIKITI
- TOTEM
- BERANGO SUKA.
- PUB PEOPLE

## C taldea

- POTROAK LORATEGI
- NABARROS
- BODISCA
- D.K.B.
- LEYA
- PERRAHOTSA
- ARTZANKOS UDALA.
- AUTOS MURU
- EXCAV. LETE
- POTROSORRI
- TXOKO TABERNA
- EQUUS BTR
- JOTAKABUA
- IRATI STS
- FRANZISKANER
- ORLANDO PIRATAS
- KOKA JUNIORS F.C.
- BANEUKO
- KE OXTIAS!!
- FOTO IMAGEN

## D taldea

- ELISABETH
- SOKOAKOAK
- LOS HEREDIA
- DIEGO ANT. IRISTU
- B.Z. SISTEMAS
- BORROCK'N ROLL
- TEODOLITO
- BUTANGAK
- OJO AVISORE
- ALTZA PORRU
- ANORTHOSIS AGU.
- MOTZ
- A.C. SURCOS
- KAKAJAURI
- LAUTHERBRUNNEN
- MIKELOS
- ARGI IBILI
- RESAKAS
- TRONKOTEAK
- SUKAR

### BASABE JATETXEA

Menu eta afariak  
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84

ARETXABAETA

### HIES EKIMENA

Astelehen, astearte  
eta ostiral

5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

comercial  
san juan

Garibai, 12  
Tfnoa: 79 13 05

hikein  
MARKO-JARTZEAK

Zerkaosteta, 4  
Tfnoa: 79 13 84



## LABURRAK

## Ostalaritza ikastaroak

Ostalaritzan interesik baduzu edo besterik gabe, sukaldean ibiltzea gustoko baduzu, hona hemen zure jakiak hobetu eta postre bereziak egiten ikasteko modua, Oñatiko Goimailako Ostalaritza eskolak, hainbat ikastaro antolatu du urriaren 10etik hasita abenduaren 21era bitartean. Ikastaroak ondorengo hauek izango dira: "Gozogintza hotza": urriaren 10ean hasi eta 26ra arte iraungo du; "Guarnizio eta saltsak": Azaroaren 2tik 10era bitartean burutuko da; "Gozogintza berezitua: Turroia": Azaroaren 29tik abenduaren 12ra bitartean eta azkenik, "Enologia eta ardoaren

dastapena" azaroaren 29tik abenduaren 21era bitartean.

Ikastaroek 15 eta 30 ordu bitarteko iraupena izango dute eta bakoitzaren ordutegia ezberdina izango da. Ikastaroon prezioak 18.000 eta 30.000 pza artean ibiliko dira. Informazio gehiago lortu nahi izanez gero, Ostalaritza Eskolara dei egin, telefonoa 71 61 90 da.



Oñatin urtero izaten da irrati-kontrol bidez maneiatutako hegazkinen lehiaketa.

## Irrati-kontrol bidezko aparatuak zaletasun

**Arrasaten** bada "irrati-kontrol" bidez kotxeak, hegazkinak, barkuak eta helikopteroak maneiatzeko zaletasuna duen lagun talde bat. Larunbatero Aretxabaleta, Bergara, Eskoriatza eta Arrasateko 20 bat lagun Escatu pabilioiaren gainean oraindik erabili gabe dagoen aparkalekuan bildu eta euren kotxeekin ibiltzen dira. Adin guztietako lagunak biltzen dira eta maneiatzen dituzten aparatuak egin dituzte lagun.

### ZALETASUN GARESTIA

Aparatu hauek Arrasaten bertan eros daitezke baina hirietan aukera gehiago egoten da. Irrati-kontrol bidez maneiatu daitezkeen aparatuak, 4 dira: kotxeak, hegaz-

kinak, itsasuntziak eta helikopteroak. Mota eta prezio askotakoak daude eta horrela klasifikatu daitezke:

#### Kotxeak:

**1/10 eskalakoak:** Alkoholaz, olio sintetiko eta nitrometanoz egindako gasolina berezi batez ibiltzen dira. Ekipoan, kotxea, motorra eta gidatzeko aparatuak etortzen dira. Mundu honetan lehenengo aldiz aritzen direnek erosten dituzte mota honetako kotxeak. 50.000 pta. inguru balio dute.

**1/8 eskalakoak:** Ekipoa osatzen duten pieza guztiak aparte erosten dira: kotxea, motorra eta gidatzeko aparatuak. 80.000 pta. tik gora balio dute. Bi kotxe mota daude: "Todoterrenoak" eta "Pis-

takoak".

**Itsasuntziak:** Motor-dunak edo belautziak

**Hegazkinak:** Motordunak edo beladunak

**Helikopteroak:** Irrati-kontrol bidez maneiatzen diren aparatuetatik garestiena da. Hauekin ibiltzen ikasteko ikastaro bereziak behar dira. Arrasaten pertsona bakar bat dabil helikopteroarekin. 130.000 pta. tik gorako prezioa dute.

### KLUBA SORTU NAHI

20 lagun hauek klub bat sortu nahi dute bazkide eta abarrekin. Udalarir zirkuito bat eta aparatuak konpontzeko kaseta bat eskatzeko asmoa ere badute.



**SORTU**  
INFORMATIKA, S.L.  
INFORMATIKA ZERBITZUAK

LORAMENDI, 7 BEHEA ARRASATE, ☎ 77 12 33

- NEURRIRA EGINDAKO PROGRAMAZIOA
- EKIPAMENDU INFORMATIKOA
- ZERBITZU TEKNIKOA

**ESKIÑA**  
TABERNA  
Gaupasa on denontzat  
**Olarte, 25**

**beatriz**  
oinetakoak eta poltsak  
Erdiko kale, 11  
Tfnoa: 79 14 33  
ARRASATE





U

dalaitz eguna datorren astean, hilaren 12an ospatuko dute mondraueko Udalaitez-

zaleek, aurten 23. aldiz. Berezi-ki bi mendizale mondrauetar gogora ekarriko dira 11etan gailurrean egingo den mezan: Iban Learreta Errarte eta Antonio Zubizarreta Urzelai. Udalaitez zaleak ere bai, jakina: Angel Balzategi, Juan Jose Salaberri, Teodoro Arana, Jesus Jauregi, Nikolas Agirre, Jose M<sup>o</sup> Saiz eta Antonio Zubizarreta.

Aste honetarako apartatu dugun erretratua ere Udalaitez tontorretik bueltan ateratako

da, 1981eko ekainaren 24ean, San Juan egunez. Donostia-ko Gotzaia, On **Jose Maria Setien** bailaran zebilen pastoralia egiten eta berak eman zuten meza nagusia. Handik denbora gutxira operatu ei zuten bihotzetik.

Goizeko 8etan irten zuten kotxez udalara, eta ordubete eta 5 minutu inguru egin zituzten bidean. Goian lainoa zegoela gogoratzen dute joan zirenek. Argazkian agertu ez den arren, Tomas Iturbe Udalako

apaiza ere eurekin izan zen gailurrean.

Zutik ezkerretik hasita, **Nikolas Agirre, Jose Maria Setien** Gotzaia, **Juan Bautista San Miguel** apaiza, **Jon Ugalde, Jesus Jauregi, Heriberto Mendizabal, Iñaki Mujika** eta **Gerardo Jauregi**.

Makurtuta, **Jesus Larrañaga, Jose Antonio Altuna** eta **Inazio Balzategi**, Udalaitez zaleen lehendakaria.

Elkar ikusiko dugu

JAI-ZALE  
TABERNA  
OLARTE

\*IZPILUA\*


BAR

OLARTE KALEA, 45  
ARRASATE. TEL. 79 67 84

Maritxu  
nonk zohy?  
Izpilura,  
jakina

Olarte kalea, 45 Tfnoa: 79 67 84  
ARRASATE





# Arrasateko OSASUN GIDA

## ALBAITARIAK

- ALTAMIRA KLINIKA J.L.Iñarra, 24-Behea ..... ☎797489  
 ZARUGALDE KLINIKA Zarugalde, 25 behea (24ordutan) ..... ☎791531

## DENTISTAK

- ADUR MEDIKU INSTITUTU ODONTOLOGIKOA Iturriotz 35 ..... ☎799560  
 ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz 17,1 Ezk..... ☎797223  
 DENTAL-ZURI (Lagunaro,Osakidetzako haur programa) Arrasate Pasealekua, 33..... ☎770136  
 GIPUZKOA ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETAKO ZENTRUA Iturriotz 7 Bis..... ☎797388  
 IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz 7, 1º..... ☎796945

## DIETETIKA ETA NUTRIZIOA

- MARIBI SERRANO Kalealdea, 11- behea ..... ☎796578

## FISIOTERAPEUTAK

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA ERREHABILITAZIO ZENTRUA Olarte 43 Bis ..... ☎770396

## GINEKOLOGOAK

- GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA Zerkaosteta,17-Behea ..... ☎792018

## LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Zurgin Kantoi 3-Esk ..... ☎797946

## MASAIARIAK

- IOSU ARANZABAL Dr. Bañez 10, 1º..... ☎791818  
 J.CRUIZ ZABALOA AZKOAGA (Kiromasaia) Jose M. Eguren 4-Behea ..... ☎795638

## MEDIKU-DIAGNOSTIKOAK

- CENTRO MEDICO UDALAITZ (Análisis klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ..... ☎794422

## OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika,Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño,6 ..... ☎792598  
 GARAGORRI OPTIKA (Optika eta optometria) Iturriotz 29..... ☎791698

## PODOLOGOAK

- BARRUTIABENGOA URANGA Pablo Uranga, 6 ..... ☎795075

## PSIKOLOGOAK

- NUÑEZ MONREAL Olarte, 10 ..... ☎798816  
 PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Logopedia) Ignacio Zuloaga 10 ..... ☎794877

## REUMATOLOGIA -BIZKARREZURTERAPIA

- GORCSARRI-TROJAOLA DReak. Zaldibar 1, 1 ..... ☎770040

**OSASUN GIDARAKO IZENEMATEA: 77 08 15**




• AIPUA •

*Mozkorrak ez ditu bizioak sortzen, agerian jarri baino ez.*


SÉNECA

• JEROGLIFIKOA •



Noiz argitaratu da liburua?


• GURUTZEGRAMA •



J. B. AGORRIA

**Horizontalak** 1. Nerea, txatxilipurdiko lehendakaria. 8. Abizenak. 10. Irudimenezko kontakizun laburra. 11. Kasik. 12. Errepikatuz, irakinaren hotsa. 13. Apar. 15. Iparretarrak. 16. Aleazio mota bat. 17. Hamar alde dituen poligonoa. 19. Atakatu.

**Bertikalak** 1. Exenplu. 2. Konkordun. 3. Seguru. 4. Insektu mota bat. 5. Gerriko min muskular bizia. 6. Ez eme. 7. Zerbaitetarako une egokia. 9. Aitaren aita. 14. Arnas gabeaz hil. 16. (Ald.) Saldu aditzaren infinitiboa. 18. Letraren izena.



• HOROSKOPOA •

**Aries** Gripearean kontrako txertoa hartuta ere, harrapatuko duzu.

**Taurus** Ez zaitetz hain lotia izan, egun osoa ematen duzu etzanda eta!

**Gemini** Txoritxo batek baino gutxiago jaten duzu; baina garrasi, lehoiak bezala.

**Cancer** Kontuz edariaz. Ez edan ardorik duen ezer.

**Leo** Alkondara zuria jazten duzunean garbiagoa dirudizu.

**Virgo** Oraingo lana ez zaizu komeni. Gehiago egin dezakezu.

**Libra** Betaurrekoak jazten dituzunean hobeto ikusten duzu, ezta?

**Scorpio** Gaur norbaitek gorbata kenduko dizu. Ez utzi!

**Sagitaris** Kotxe berria erosten baduzu, gehiago ligatuko duzu.

**Capricorn** Hiztegi batek baino gehiago dakizu. Horregatik zara aspegarria!

**Aquarius** Horrela jarraitzen baduzu, buruan perretxikoak aterako zaizkizu.

**Piscis** Ez egin inori ere kasurik eta ez zara damutuko.

# GAZTEAK NATURAN

## VI. ARGAZKI LEHIAKETA

### 2 KATEGORIA

- a) Deba garaiko 14-20 urte bitartekoak
- b) 21-35 urte bitarteko edozein

### SARIAK:

- a) kategorian:
  - 1- 20.000 pta.
  - 2- 15.000 pta.

### b) kategorian

- \* TXURIBELTZEAN:
  - 1- 50.000 pta.
  - 2- 35.000 pta.

- \* KOLORETAN:
  - 1- 50.000 pta.
  - 2- 35.000 pta.




**LANAK AURKEZTEKO AZKEN EGUNA: URRIAK 14**





# Xabier Ibarzabal: Astebeteko aurpegi berria

**A**rgazkiko gazte hernaniar hau dugu ATBko Astebete saioko aurkezle berria. Komunikabideetan aditua da oso, baina kamara aurrean agertzeari beldurra diola esaten du. Joan den astean izan zen bere "debuta" eta primeran moldatu zen. Gehiago ezagutzeko, jarraiko elkarrizketa egin diegu.



goizean goiz egunkariak banatzen ibiltzen naiz.

— **Telebista aurrean aurpegia ematen duzun lehenengo aldia izango da. Zer moduz daude nerbioak?**

— Urduri nago baina ez gehiegi, ATBko jendea aurrez ezagutzen nuen eta. Dena dela, kamara baten aurrean jartzea ez da txantxetako eta gainera, Mikel Irizarrek oso goian ipini du listoa... ikusiko dugu nola moldatzen naizen; momentuz, lehenengo programa aurrez grabatutakoa izango da.

— **Ezagutzen zenuen Astebete aurrez?**

— Tarteka ikusi izan dut eta Mikelen lana bikaina izan dela esan dezaket.

— **Zuk zuzenduko duzu programa?**

— Ez nago ziur. Printzipioz ATBkoak saioa mantendu nahi zela esan zidaten eta aurkezle berria behar

zutela. Planteamendua hau da: kazetariak astean zeharreko lana egingo dute printzipioz eta nik aurkeztu besterik ez dut egingo. Aurrerago, ziurtasun gehiago hartzen dudanean, nire iritziak edo gustoko ditudan erreportaia eta gaiak egin eta jorratuko ditut.

— **Gai konkreturen bat lantzeko asmorik?**

— Bai, baina kontutan izan behar da Astebetek dagoeneko nortasun bat duela: Ni nire gustoko diren gaiak aztertzen hasten banaiz, "nire" programa izango da, eta ez ikuslearena. Tratatu diren gaiak dosifikatu egin behar dira, ezin dut nire gustoko Astebete bat egin. Nire pertsonalki, komunikabideen mundua asko gustatzen zait, izan ere, komunikabideetan egiten diren gauzak aztertzen ibili izan naiz beti; batez ere irratia interesatzen zait.

— **Ilusioz hartu duzu eskaintza?**

— Bai, azken finean erronka bat da niretzako. Printzipioz ez da beste munduko lana eta ez naiz gehiegi konprometitu, baina ahal dudan ondoen egiten saiatuko naiz.



## 10 Astelehena

13.30etan  
**Astebete** (errep.)  
20.00, 20.30 eta 21.00etan  
**Berriak**  
21.30etan  
**Mondrasport**

## 11 Asteartea

13.30etan  
**Mondrasport** (errep.)  
20.00, 20.30 eta 21.00etan  
**Berriak**  
21.30etan  
**ATBketan**

## 12 Astezkena

**Ez da programaziorik egongo.**

## 13 Osteguna


20.00, 20.30 eta 21.00etan  
**Berriak**  
21.30etan  
**Ibilixan Dabilena.** Gonbidatua: **Lorea Diaz de Gereñu:** Nikaraguan brigadista moduan duela bi urte ibilitakoa. Zaldiketa edo hipikari buruzko erreportai interesgarri bat ereizango duzue ikusgai.

## 14 Ostirala

13.30etan  
**Ibilixan Dabilena** (errep.)  
19.15etan  
**Kukaratxa Motel**  
20.00, 20.30 eta 21.00etan  
**Berriak**  
21.30etan  
**Astebete Xabier Ibarzabal-ek** aurkeztua.

## 16 Igandea

21.00etan  
**Mondragol.**



# ETXERAT

## Taberna

*Topa egin gurean*

## SOLUZIOAK

Igaz eta aurtin.  
**Jeroglifikoak:**  
18. Ka.  
Okasio. 9. Aitona. 14. Ito. 16. Sal.  
3. Zitur. 4. Oit. 5. Lumbago. 6. Ar. 7.  
**Bertikalak:** 1. Adibide. 2. Lepoker.  
no. 19. Eraso.  
Bris. 15. IK. 16. Latoi. 17. Dekago-  
rak. 10. Ipuin. 11. Ia. 12. Bor. 13.  
**Horizontalak:** 1. Alzola. 8. Deltu-



**Etxebizitzak**

- **Gatzagan jatetxea alokagai** Tfnoa: 71 51 23.
- **Lagun bila nabil** Arrasaten alokatzeko pisu bat aurkitzen hasteko. Tfnoa: 79 00 27.
- **2 pertsona behar dira** Deustun pisua osatzeko, logela konpartitzeko prest. Tfnoa: 79 48 46.
- **Pisua alokatzen da** Zabalotegi kalean (Bergaran) Tfnoa: 76 58 91.
- **Pertsona bat behar da** Donostian pisua konpartitzeko. Tfnoa: 78 13 59.
- **Neska batentzako logela** bat daukagu (sukalderako eskubideaz). Tfnoa: 79 58 22. Dei egin eguerditan edo gauzez.
- **Bilbon pisu bat** osatzeko mutil bat behar da. Tfnoa: 79 14 71.
- **Donostian, zentruko ikasle-pisua** osatzeko neska behar da. Banakako gela. 15.400 pta. Tfnoa: 77 00 29 (goiz partean deituta hobe).
- **Donostian ikasle pisu** batean, gela bat libre daukagu alokatzeko. Interesatuta bazaude, dei egin 79 33 58ra.
- **Ikasle pisu batean** logelaren bila nabil. Arrasaten edo Aretxabaletan. Tfnoa: 39 83 73. De egin asteburuetan.
- **Bi lagunentzako txokoa** dugu Deustuko pisurik onenean. Deitu berehala, beste norbait aurreratu baino lehen. Tfnoa: 71 42 10 (Aitziber). Gauzez.
- **Bere etxean ikasle bat** hartuko lukeen familia bat behar da. Tfnoa: 64 08 76. 8'00etatik 10'00etara.
- **Langile batek etxebizitza behar du** alokagai Arrasaten. Tfnoa: 88 25 71.

**Lana**

- **Emakumea prest** pertsona nagusiak zaintzeko. Egunez edo gauzez. Tfnoa: 79 26 47.
- **Klaseak ematen ditut:** Matematika, kontabilitatea eta matematika finantzieroa. Tfnoa: 77 00 23. Gloria.
- **Esperientziadun estetizista** naiz eta lan bila nabil. Dei egin 79 98 20 tfnora. Aitziber.
- **Esperientziadun estetizista** naiz eta etxeetara joanda lan egiten dut. Tfnoa: 79 98 20. Aitziber.
- **Kirol denda batean lan egiteko** mutil euskalduna behar da, 20 urtetik gorakoa. Interesatuek bidali curriculum vitae-a 259 posta kutxilara lehenbait lehen.
- **Neska eskaintzen da** umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko, edo laguntzaile gisa taberna baten, jatetxean sukalde laguntzaile, pratelak garbitzen... Tfnoa: 79 96 10 / 79 72 12.
- Ingeles filologian lizentziatuak klaseak ematen ditu azterketa prestakuntza, taldeetan nahiz banaka. Maila guztiak. Tfnoa: 79 86 33.
- **Bibolin klaseak** ematen dira. Adin guztiak. Tfnoa: 79 25 85.
- **1/2 eta 1/4ko bibolinak salgai.** Egoera eta prezio onean. Tfnoa: 79 25 85.
- **Erdiko kalean pisu on bat** alokatzen da, 4 edo 5 pertsonentzako. Dei egin 77 03 38 / 79 18 03 Tfnoetara.
- **Pisu bat erosi edo alokatuko** nuke. Tfnoa: 79 31 25
- **Emakumea** umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest dago. Tfnoa: 79 60 18. M<sup>a</sup> Carmen.
- **Lizentziatuak** enpresa zientzietako klase partikularrak emango litzuzke. OHO, BBB edo UBI mailatan. Kontabilitatea eta matematikak. Tfnoa: 79 16 99.

**Salerosketak**

- **"CANON EOS-650" argazki kamara** saltzen dut. Prezio ezinhobean. "35-70 objektiboa" barne. Tfnoa: 79 23 60. Niko.
- **la berria dagoen akordeoia** saltzen dut. 120 baxu. Beltza. Tfnoa: 79 80 91.
- **PUCH Condor ziklomotorea salgai.** Egoera onean. Tfnoa: 79 66 92. Juan.
- **Akordeoi kromatikoa** saltzen dut. BIGINI markakoa eta 120 baxukoa. Tfnoa: 79 91 30. Nerea.
- **OPEL VECTRA (SS-AH)** salgai. 32.000 Km. ditu. Tfnoa: 79 62 85.
- **Eskiatzeko ekipoa salgai:** 1,80m. etako DINASTAR markako tablak. LOOK markako fijazioak eta bastoiak. Prezioa: 15.000 pta. Interesatzen bazaizu dei egin 79 17 96 tfnora.
- **Salgai:** - PHILIPS telebista 20 hazbetekoa. - 2 radiadore FAGOR programadoreaz. - Teklatu-organoa LOWREY. Oso merke. Tfnoa: 79 82 47. Gauzez.
- **Alarma sistema bat,** denda edo taberna baten-tzako, salgai. Tfnoa: 79 53 18. 70.000 Pta.

**Denetarik**

- **Egunero Bilbora joateko** kotxe baten bila nabil (Gasolina erdibana). Tfnoa: 79 13 77. Juanjo.
- **Jendea behar dut** asteartetan eta ostegunetan goizeko 7'30etan kotxez Donostiara joateko. Tfnoa: 79 09 11. Garbiñe.
- **Ostegun edo ostiralean** (irailaren 30a) urrezko pultsera galdu nuen erdikaldean edo Eroski inguruan. Norbaitek aurkitu badu, dei egin 79 57 81 tfnora.
- **Zorionak ZORI,** zorionak Zori, Zorionak Zoori, tirori, ti-ro-ri!! Hizkepot.

**Aste Gazte**

**Lana**

- Arrasateko Udalak lanpostu hauen deialdia egiten du: a) lantaldeetako gidaria plaza bat; b) administrari laguntzaile plaza bat. Epea: urriak 11.
- Donostiako giza-babese-ko zentruak zenbait lanpostu kaleratu ditu: a) giza laneko teknikaria lanpostu bat, b) bi sukaldari laguntzaile lanpostu.

**Bekak**

- Euskal Arkeologia, etnografia eta kondaira-museoak zenbait bekatarako deialdia egiten du. a) etnografia eta kondaira-materialen erroldapena eta sailkaketa egiteko bi beka,

b) argazki-agiritegiaren erroldapena eta zaintza egiteko beka bat, d) arkeologia, etnografia eta kondaira-materialen berriztapenerako beka bat. Epea: urriak 14.

**Ikastaroak**

- Durangoko enplegu eta prestakuntzarako "Sartu" zentruak lanerako prestakuntzako hainbat ikastaro antolatu ditu, langabetuei zuzenduak: a) metaluzko arozgintza. Epea: urriak 21, b) merkataritza laguntzaile. Epea: azaroak 25, d) etxer-etxeko laguntza. Epea: urtarrilak 31, eta e) geriatrico laguntzaile. Epea: urtarrilak 31.
- Oñatiko Goimailako Osta-

laritza Eskolak, ikastaro hauek antolatu ditu: 1) gozogintza hotza, 2) guarnizio eta saltsak, 3) gozogintza berezitua: turroia, 4) enologia eta ardoaren dastapena. Iraupen, data, ordu-tegi eta prezio ezberdinak.

**Lehiaketak**

- Euskal-Herriko Banco Central Hispanok "Imajina ezazu Euskadi" VII. ekitaldiaren deia egin du. Margolaritza, argazki-gintza, poesia eta ipuinak. Epea: urriak 31.
- "Gazteak Naturan" V. Argazki lehiaketa. Gaia: Gazteak Naturan. Bi kategoria: a) Deba Garaiko 14-20 urte bitarteko gazteak; b) 21-35 edozein. Bi modalitate: a) zuri-beltzean; b) koloretan. Epea: urriak 14.

**"Hobe da ejerzi-  
toan egotea,  
litronak edatea  
baino"**

**MANUEL GUTIERREZ  
MELLADO.  
OHOREZKO KAPITAIN  
JENERALA. EL DIARIO  
VASCO.**



**Informazio gehiago:  
GAZTE ZERBITZUA  
Tfnoa: 77 00 65**





# NIRE AUTOA BAZINA AUTO HAU IZANGO ZINATEKE.

MCCANN



BERTSIOAK: 3 eta 5 ate  
MODELOAK: CITY, SWING, SPORT, JOY Automatikoa, GLS y GSi.  
MOTOREAK: Gasolina Injekzioa 1.2 (45 CV), 1.4 (60 y 82 CV),  
1.6 16V. (109 CV); Diesel 1.5(50 CV) eta Turbodiesel (67 CV).

**OPEL CORSA**  
NIRE AUTOA

**OPEL** 

Z A I N G A U Z K A Z U

**10<sup>o</sup>**  
**URTEURRENA**

**TALLERES OLA**

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. **BERGARA** (Gipuzkoa)

Zerbitzu ofiziala ARRASATEn  
**TAKOLO AUTOAK**  
Araba etorbidea, 3 ARRASATE Tfnoa: 79 05 86.

**OPEL KONTZESIONARIO OFIZIALAK. HOBEAK, ESPERIENTZIAGAITIK.**





A R R A S A T E N



UNITED COLORS  
OF BENETTON.

